

AMALAUDUNA.



(ON KARMELO ECHEGARAY JAUNARI).

Izkribatzalle gain gañeko bat Karmelo dala
Euskal-erriyan geiyenchuenak ondo dakigu;
Moldaeracho eder ta asko ipini ditu,
Bada euskaldun artean Jaunak opa dezala.
Amets ondoren oroi-zitzaidan egin nezala
Zerbait, zein dan au orain ta gero gaiten oroitu;
Ez dediyela luma neria bada ordoitu
Jaun aundiyari eskatzen diyot argi nazala.
Gazte zalarik izkribatutzen gogoz asi zan
Amagandikan ikasi zuen izkuntz onean,
Euskal-arteana askok dakigu gazte au zein dan;
Dakigu ere egon oi dala libru gañean,
Orrelakoak ama euskarak dezazkiñ izan
Eska zaiyogun Jaungoikoari gure lurrean.

JUAN IGNAZIO URANGA.

